


ZALDIBIKO GUNE EZBERDINEN ERABERRITZEA LANTZEKO EGITASMO PROPOSAMENA, 2016

XEDE TALDEAK

Egitasmo honetarako xede taldeak eta antolaketa egitura aurkezten dira atal honetan.



1. UDAL TALDEAK: Udalean ordezkariak duten bi taldeak dira. Haien adostasuna eta kontsentsuaren lan eskema lehenetsiko dute lan ildo honetarako, eta horrela adostuko dute idatziz. Era berean, herritarren hausnarketetatik jasotzen den edukia, eta batez ere herritarren adostasunak, prozedura administratibo eta instituzionalen bidez bideratuko dituzte.

2. KOORDINAZIO MAHAIA: Udaleko bi ordezkariak (gubernuan egon edo ez), eta Aztikereko ordezkaria osatuko dute. Bertan, komunikazio edukiak eta euskarriak, eta prozesuak behar dituen zerbitzu eta azpiegiturak koordinatuko dira eta bideratuko dira.

3. TALDE ERAGILEA: Partaideei dagokionez, Udal taldeek aurrez adostutako partaideak izango dira, eta horretan bermatuko da aurreko partaidetza dinamiketan izandako pertsonak izatea, genero ikuspegia izatea, aniztasun ideologikoa, jatorri aniztasuna eta adin aniztasuna ere.

Herritar talde honen **helburua eta funtzioa da herritarrekin batera kontrastatuko diren proposamen(ak) zehatza(k) edo ideia(k) aurrez lantzea, ordenatzea eta horrela badagokio, horietako baten alde ere posizionatzea, eta herritarrei proposamen bezala eskaintzea. Horretarako pertsona hauek edukiak aurrez landuko dituzte lehenik indibidualki eta gero talde lanean, kontsentsua duten edukiak ebatzi arte.**

2016a amaitu bitarte Talde Eragileari proposatzen zaion lan dinamika zehatza hauxe da:


- Herri dinamika irekia martxan jarri aurretik hasiko da lanean, eta prozesuaren diseinu zehatza gainbegiratu eta onartuko du.
- Segidan, Talde Eragileak tailer zehatza egingo du Plazaren gaineko aktuazio aukeren azterketa egiteko, eta proposamen zehatza(k) sortzeko.
- Urtea amaitu aurretik eta Herri Dinamika egin ondoren, Talde Eragileak bere bigarren tailerra egingo du, sakontzeko eta zehazteko 2017an zehar lantzeko proposamen zehatza.

4. ZALDIBIAKO HERRITARRAK OROKORREAN:

Zaldibiako herritar denak sartzen dira xede talde honetan, bere aniztasuna kontuan izanik: emakumezko gizonetzko; haurrak, gazteak, helduak, adinekoak; kaskoan bizi ala landa gunean bizi; jatorri eta ideologia ezberdinen arabera, e.a. Herritar denak izango dira deituak eta horretarako komunikazioa egingo da. Horrez gain, eta aurreko hilabeteetan izan den lanketa kontuan izanik, orduan izandako partaideei deialdi zehatza eta berezia egingo zaie (datuak dauden neurrian), orduan haien landutako edukia bueltatuko baitzaie. Era berean, partaide zehatza hauei eskatuko zaie erakartzea beste herritarrek.

HERRITAR ADITUAK/PROFESIONALAK: *proposatzen da asko behatzea herritar aditu/profesional interesekoak. Horiek honelako disziplina ezberdinen arabera izan daitezke: arkitekto, aparejadore edota eraikuntza eta obratan adituak; espazioen erabilera eta funtzioen azterketatan adituak; espazio eta generoa adituak; soziologoak eta antropologoak orokorrean; administrazio eta instituzio ezberdinen funtzionamendua ezagutzen dutenak eta diru-laguntzen kudeaketatan adituak direnak, e.a. (aditu eta profesional eremuak koordinazio mahian zehaztea proposatzen da.*

PROZESUAREN LAN FASEAK ETA EKINTZAK:



PROZESUAREN LAN KRONOGRAMA

AZAROA:

- 7AN, TALDE ERAGILEAREN AURKEZPEN BILERA
- 15AREN BUELTAN, TALDE ERAGILEAREN 1. TAILERRA
- HERRI KALEJIRA ETA GELTOKIAK (PRESTAKETA LANAK)
- 26AN, HERRI KALEJIRA 4 GELTOKIEKIN (DATA BEHIN BEHINEKOA)

ABENDUA:

- 3AN, HERRI KALEJIRA 4 GELTOKIEKIN (DATA BEHIN BEHINEKOA)
- ONDORIOAK ETA EMAITZAK
- 15-19AREN BUELTAN, TALDE ERAGILAREN 2. TAILERRA

URTARRILA:

- PROZESUAREN EMAITZEN DOKUMENTAZIOA
- 2017RAKO LAN PROPOSAMENA